

# elikadura burujabetza euskal herrian

Patxi Gaztelumendi



## Nekazaritza iraunkorra, tokiko garapena eta ekonomia alternatiboa aktibatzen

**B**aserri munduan aldaketak etengabeak izan dira azken hamarkadetan. Baserritarrak, egunero eguraldia, zelaiak edota soloan gauzak zelan aldatzen diren ikusten duen bezala, bere inguruan industriak eta ekonomiak ere izan duten bilakaera ere ikusteko parada izan du. Baserrian bertan ere aldaketak nabarmenak eman izan dira, eta horrek ondorioak izan ditu gurean ere, ondorio latzak. Nekazal politika publikoetatik bultzatutako eredu intentsibo eta industrialak, baserria desagertzera eroan du, apurka apurka, nahiz eta azken urteotan krisiak bate-tik, eta kontzientziak bestetik, aldaketa garaian gaudela ere erakusten duten.

Beste ekonomia bat, bizitzeko beste era bat aldarrikatzen denean, elikadurarekin –beraz baserriarekin, eta elikagaiak ekoiztu eta kontsumitzeko moduekin– lotutako gaiek gero eta oihartzun gehiago daukate. Gero eta kezka handiago dago euskal jendartean gai hauen inguruan. Kezka soziala da, osasunaren ingurukoa, lurrarekiko atxekimendua, ingurugiroa errespetatzeko motibazioa, ekonomikoa, politikoa... baldintza guzti hoiak egin dute, Elikadura burujabetzaren aldeko jarrera eta pratika gure herrian.

## Eredu aldaketa

Baserrri munduan, arrantzan bezala, joera handia eta interesatua egon da nekazaritza eredu industrialera joateko. Balizko aberastasuna bilatzen, eredu industrial eta intentsiboak ordea, gutxi batzuen onura eta gehienon porrota ekarri dute. Miseriara kondentatutako sektore baten aurrean gauden, bankuen hipotekak ezin ordainduta dagoen makina bat baserritarren aurrean, gero eta zaharragoa izan behar zuen belaunaldi oso bat.

Baserritarren kezkek, Europako adibideek, eta Ipar Euskal Herrian landutako bideak erakutsi dute, beste nekazaritza eredu bat posible dela. Nekazaritza iraunkorra beharrezko duela gure herriak aurrera egiteko. Elikagai osasuntsuak, sasoiak eta tokioak ekoiztu eta kontsumitzeko. Eta bide horretan,

gure baserritarrek munduko beste leku askotako nekazal mugimenduekin izandako hartueman eta konpromisoak asko lagundu du.

## Elikadura burujabetza

Herri guztiok zer kontsumitu eta zer ekoizten dugun erabakitzeko eskubidea da Elikadura burujabetza. Via Campesinak egindako proposamen politiko eta ekonomiko honek sekulako garrantzia hartu du mundu osoan. Eta gurean ere, gero eta gehiago dira gaiari helden diotenak; ez soilik baserri munduan, baizik eta gizarte mugimenduan, mugimendu sindikalean, nazioarteko elkartasunean eta lankidetzan ari diren erakundeak, mugimendu feminista edo ekologistatik, ikasleek guraso elkarrekin, gaztetxeak, instituzioetako arduradunak... eta horrek, gurean ere mugimendu politiko eta sozial interesgarriak eremua sortu du.



Elikagaiak ekoiztea, merkaturatzea, herritarren ahora eramatea da baserritarren ardura eta konpromisoa. Sasoiak sasoiak eta tokian tokioa kontsumitzea herritarrena. Kontsumo eredu aldaketa bat ematen ari da gurean ere, apurka apurka. Eta aldaketa posible dela ikustaraztea da orain hurrengo kezka, hurrengo lana. Gure etxeetako mahaietan, gure jantokietan, herri bazkari eta ekitaldi publikoetan, ospitaleetan, jangela publikoetan... guzti hori isladatzea. Elikadura burujabetza erabaki politikoa delako, gutako bakoitzak egunean zehar hartzen duena, egunero. Eta goitik zein behetik hartu daitekeen erabakia. Unibertsala. Eta elikadura, eskubide bat da. Ondo jatea, osasuntsu jatea, egunero jan ahal izatea.

## La Vía Campesina

### 20 de años de lucha contra el neoliberalismo en todo el planeta

En junio de 1993 un autobús de baserritarras vascos salía de Euskal Herria hacia Mons, Bélgica. En la pequeña ciudad universitaria belga se dieron cita cientos de campesinos de varios continentes, para crear lo que sería el nuevo movimiento campesino internacional denominado la Vía Campesina.

Hoy, 20 años más tarde, este movimiento agrupa en sus organizaciones de todo el planeta a 250 millones de familias campesinas, en Europa, Asia, África, América del Norte, la región central y del Caribe, y las organizaciones de América del Sur. Seguramente será la organización internacional más fuerte contra el neoliberalismo, y ha sido dentro del llamado movimiento anti globalización uno de los movimientos más combativos tanto en las cumbres de la OMC (Organización Mundial del Comercio), Banco Mundial y demás citas del capitalismo moderno.

La Vía Campesina es una organización internacional que agrupa a centenares de sindicatos, organizaciones campesinas y movimientos de todo el planeta, y su propuesta política más importante y reconocida a nivel mundial ha sido la de la Soberanía Alimentaria, planteamiento político y económico hecho público en 1996, reconociendo el derecho de todos los pueblos a decidir la alimentación, tanto en el consumo como en la producción. Este derecho, está siendo la bandera más importante de la Vía Campesina, aliada en este momento con otros muchos movimientos sociales, políticos, sindicales, ecologistas, feministas con el objetivo de ir haciendo realidad la agricultura sostenible, la agricultura campesina por medio de la agroecología.

En Euskal Herria la Vía Campesina ha tenido mucha presencia tanto por la participación histórica de EHNE y portavoces como el baserritarra Paul Nicholson, como su compromiso con la tierra y los derechos de los y las baserritarras vascas, como funciones de responsabilidad internacional que se están asumiendo desde nuestro pequeño pueblo. Este año la Vía Campesina celebrará su VI Conferencia en Yakarta (Indonesia) donde representantes de todo el planeta debatirán sobre el futuro del movimiento ligado a la tierra, la producción sostenible de alimentos para toda la humanidad, la apuesta por los derechos de las mujeres campesinas, el futuro de la agricultura y los jóvenes campesinos, el cambio de modelo o el camino de la Soberanía Alimentaria. En 2017, la próxima estación será Euskal Herria.



### Tokiko garapena

Horregatik garrantzitsua da Euskal Herri osoan ematen ari diren aldaketak, prozesu agroekologikoak, kooperatiba eta dinamika sozial berrien sorrera, kontsumo taldeen hazkundea... guzti hori ezagutzea. Ezagutzera ematea. Bisibilizatzea. Lehen sektoretik –arrantza edo nekazaritza...– sektore produktibotik, dinamika sozial eta ekonomiko integralak abian jartzea. Elikagaien ekoizpena, transformazioa eta salmenta zuzena sustatuz, ekonomia eredu berri bat, etikoagoa, iraunkorragoa eta alternatiboa eraikiz.

Tokiko garapenean, herriz herri eta eskualdeka, Euskal Herri osoko egoera sozioekonomikoan eraldaketa planteatuz. Modelo produktiboa aldatzeak, modelo ekonomiko osoan ere eragina izan nahi duelako. Beste eredu bat posible da, eta herriz herri erakusten ari gara. Herrietako eskola jantokietan kudeaketa eredu arduratsua martxan jartzen denean, herriko baserritarren produktuekin, bertako dendetako ekoizpeneekin; kooperatiba berri eta partehartzaileak sortzearekin, ekonomato txikiak eta irekiak sortzen, kontsumo taldeak sustatzen, herri baratzak landatzen, formazio agroekologikoa eskaintzen eta hartzen, politika publiko berriak aldarrikatzen, lurra zaintzen... ekonomia eredu alternatibo bat, berri bat, iraunkorago eta justuago bat ari gara lantzen.

### Posible da, eta egiten ari gara

Nekazaritza iraunkorra posible ez ezik, beharrezkoa ere bada. Gazteak, gero eta arduratsuago ari dira jokatzeko, gero eta gehiago dira lurrarekin lan egin nahi dutenak, eta apurka apurka egoera buelta ematen ari garelako esan dezakegu. Harrotasunik gabe, baina irmoki. Euskal Herrian agroekologia eta nekazaritza iraunkorra egunetik egunera gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira; bertoko produktuak, ekologikoak, sasoiak gero eta gehiago kontsumitzen ari dira, nekazal eskoletan dabilten ikasleek ere beste modelo produktibo bat aldarrikatzen ari dira. Guzti horrek, esperantza sortu du baserritar aktiboen artean, konpromisoa erakunde sozial eta militanteetan, eta borrokarako grina mantentzen da herri eta txoko askotan. Garaian garaikoa eta tokian tokikoa ekoiztu eta kontsumituz, Elikadura burujabetza lantzen ari gara Euskal Herrian, eta gainera oso gozosa da, garrantzitsuena.